LIZITAZIO IRAGARKIA

1.- **Erakunde esleitzailea**

a. Erakundea: ESKORIATZAKO UDALA

b. Espedientea tramitatzen duen arloa: HIRIGINTZA

2.- **Kontratuaren gaia**

a. Deskribapena: **"SANTA ANA KOMENTUKO KAPERA – ZALDIBAR ANTZOKIA-GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO II. FASEA**"

b. Obra exekutatzeko lekua: Santa Ana komentu zaharra; Santa Ana 3 - ESKORIATZA

c. Exekuzio epea: SEI HILABETE

3.- **Tramitazioa eta esleipena egiteko prozedura**

a. Tramitazioa: ARRUNTA

b. Prozedura: MUGATUA.

4.- **Lehiaketarako oinarrizko aurrekontua:** 580.320,42 €.

5. **Esleipena egiteko erabiliko diren irizpideak:**

- Oro har, obra ezarritako baldintzetan eta epeetan zuzen burutuko dela ziurtatuko duten bermeak.
- Erainkuntza prozesuari edota ingurumen prozesuari buruz proposatutako hobekuntzak.
- Kontratuak enplegua sustatzeko zein neurritan laguntzen duen neurtzeko adierazleak.
- Prezioa

6.- **Behin behineko bermea:** Ez da eskatzen.

7.- **Agiriak eta argibideak non jaso.**

- Proiektua

Atai S. Coop fotokopiagintzan

Helbidea: Basabe Poligonoa F-2 Aretxabaleta 20550

Telefonoa: 943.798.166 / Faxa: 943.712.107

- Administrazio baldintza agiriak:

a. Erakundea: ESKORIATZAKO UDALA

b. Helbidea: Fernando Eskoriatza plaza z/g.

c. Herria eta posta kodea Eskoriatza- 20540

d. Telefonoa: 943-714407

e. Telefaxa: 943-714042

f. Posta elektronikoa:udala@eskoriatza.net

g. Kontratugilearen eskakizunak: www.eskoriatza.net

Dokumentuazioa eta informazioa eskuratzeko azken eguna: 10 egun naturaleko epea iragarki hau GAOnargitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita. Aipatutako epearen amaiera larunbat, igande edo jaieguna egokitzen bada, epea hurrengo lanegunera luzatuko da

8.- **Kontratistaren betekizun espezifikoak.**

8.1.- Lehiatzaileak "C" taldea "D" kategoria, "J" taldea 2 azpitaldea "C" kategoriako obrak kontratatzeko gaitasuna ematen dion sailkapena duela egiaztatzen duen agiria.

8.2.- Gainera, honela ere frogatu beharko da:

- Finantza-kaudimena:

a) Alde batetik, finantza-erakundeen adierazpen egokiak, eta bestetik, lanbideko arriskuak babesteko, gutxienez, 250.000 €-ko polizadun asegurua baduela erakusteko egiaztagiria.

- Kaudimen teknikoa eta profesionala:

Kaudimen teknikoa eta profesionala honela egiaztatuko da.

a) Azken bost urteetan burututako lan edo zerbitzuen erlazio bat aurkeztu beharko da, zenbatekoak, datak eta obrak non egin diren zehaztuz. Aldi Baterako Enpresa Elkarteen kasuan, horietan izandako partaidetzaren araberako esperientzia hartuko da kontuan.

Azken 5 urteen barruan gutxienez honako hauek exekutatu izana:

Lehiaketaren % 50etik gorako aurrekontuko obra bat.

3 zaharberritze obra

Metal-egitura eta metaleria erabilitako 3 obra

b) Aitorpena, obrak egiteko baliatuko diren makinak, materiala eta talde teknikoa zehaztuko duena. Aitorpenarekin batera horren egiaztagiriak aurkeztu beharko dira. Enpresak, gutxienez, ondoren zehaztuko diren baliabide material eta pertsonalak izatea, eta horiek obrari atxikita egotea eskatzen da.

Topografo bat ekipo osoarekin, zuinketa egin eta metalezko egitura jartzen den denboran.

Gutxienez unibertsitateko erdi mailako tituludun obra burua, 5 urteko esperientziarekin antzeko obretan.

c) Kontratuaren gauzatze partziala zein azpikontratistarekin hitzartuko duen, zein kontratu-zati azpikontratatuko diren, dituzten baliabide pertsonalak eta materialak eta azpikontratisten esperientzia antzeko obretan jasotzen duen aitorpena aurkeztu beharko du.

Sabaien estaldura egiteko zein estaldura piezen definizio geometrikoa egiteko metalezko azpiegituraren azpikontratistek, edo horrelakorik ezean, kontratista nagusiak, gainera, bulego tekniko kualifikatua izan beharko du lehenengo fasean mota horretako lanetan esperientziadun langile kualifikatuek egindako egiturari piezakatze teorikoak egokitzeko planoak egiteko hiru dimentsiotan; eta horrela, proiektatutako egitura guztiaren, nagusiaren eta bigarren mailakoaren, piezakatutako planoak egin ahal izan muntaia hasi baino lehen.

9.- **Eskaintzak edo parte hartzeko eskabideak aurkeztea.**

a.

a. Aurkezteko azken eguna: 10. egun naturala iragarki hau GAOnargitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita. Aipatutako epearen amaiera larunbat, igande edo jaieguna egokitzen bada, epea hurrengo lanegunera luzatuko da

b. Aurkeztu beharreko dokumentazioa: baldintza administratiboen agiriko 24. artikuluan zehaztutakoa.

c. Aurkezteko lekua:

- Erakundea: Eskoriatzako Udala – SARRERA ERREGISTROA – lanegunetan (larunbatak izan ezik), jendearentzako ordutegian.
- Helbidea: Fernando Eskoriatza plaza z/g
- Herria eta posta kodea: Eskoriatza, 20540

d. Eskaintza egiteko gonbidatzeko asmoa dagoen gutxieneko enpresa kopurua: 3

10.- **Eskaintzak irekitzea:**

Eskaintzak ekitaldi publikoan irekiko dira kontratugilearen eskakizunetan eta onartutako enpresa lehiatzaileei egindako jakinarazpenean zehaztuko den lekuan, egunean eta orduan.

12.- **Iragarkiaren gastuak:** Eskoriatzako Udalaren kontura izango dira.

Eskoriatzan, 2012ko apirilaren 24an.
ALKATEA.